

[Donostia]Martxoak 29an Hitzalidia: Baztango Erdiz Bizirik eta Zizurkilgo Andatza-Ezkeltzu Bizirik

ATORRAIALA, HARITZALDE, ULIAKO LORE BARATZAK Y EKOLOGISTAK MARTXAN. :: 23/03/2023

Martxoak 29an Donostian HITZALDIA emango dute Baztango ERDIZ BIZIRIK eta Zizurkilgo ANDATZA-EZKELTZU BIZIRIK taldeek

--Maiatzaren 2an Antonio Turiel zientzilariarekin hitzaldi bat egingo da bestalde--

Martxoak 29 asteazkenean, Donostian hitzaldia emango dute Baztango ERDIZ BIZIRIK eta Zizurkilgo ANDATZA-EZKELTZU BIZIRIK taldeek, **arratsaldeko 7etan Groseko Okendo Kultur Etxean**. Hori dela eta, **landa eremuaren defentsan** egingo den hitzaldi honetara biltzeko eta zuen inguruan deialdi honen berri emateko gonbitea egiten dizuegu.

Izan ere, azken aldi honetan natur-guneak eta landa ingurunea gogor kaltetzen dituzten azpiegitura eta proiektu berri ugariaren eraso bortitza pairatzen ari gara. Hitzaldi honetan, Erdiz Bizirik taldeko **Antton Larnaga** eta **Maria Goienetxe** kideek **Baztango Erdizko mendi-lurretan (Saioa mendialdean) Magnesitas de Navarraren harrobi-meategi berria zabaltzearen ondorio larriak** azalduko dituzte. Haiekin batera, **Zizurkilgo Ezkeltzu mendian Green Capital enpresak eraiki asmo duen zentral eolikoak** kaltetutako abeltzain eta Andatza-Ezkeltzu Bizirik taldeko **Ttale Lizarraga** eta **Ainhua Gil** kideek gure ingurune aski hondatua eragiten duen proiektu hori bertan behera uzteko dauden arrazoien eta egiten ari diren borrokaren berri emango digute.

Maiatzaren 2an Antonio Turiel-en hitzaldia:

Bestalde, maiatzaren 2an Antonio Turiel zientzilari-azterlariak **"Energia berriztagarrien makro-proiektuak eta zentral eolikoak eztabaidan"** izenburupean hitzaldia emango duela iragartzen dugu, Uliako Lore Baratzen parkean.

Mobilizazio deialdiak: Hitzaldi hauetan jorratuko diren gaien harira, Erdiz Bizirik taldeak **apirilaren 22an Iruñean "Landa Eremuaren Defentsan: Lurraren osasuna, gure etorkizuna"** lemapean **manifestazioa** deitu du. Halaber, hainbat taldek eta mugimenduk baterako ekimenean **Gasteizen maiatzaren 20an manifestazio garrantzitsu bat egiteko deia** zabaldu dute **"Lurraren defentsan: Euskal Herria bizirik!"** lemapean.

Antolatzaileak: Donostian solasaldi hauek **Satorraiala, Haritzalde, Uliako Lore Baratza eta Ekologistak Martxan** taldeek elkarrekin antolatu ditugu.

Zuen partehartzea espero dugu beraz, baita zuek informatu eta animatuko dituzuen lagunena ere.

Charla en defensa del entorno rural con Erdiz Bizirik (Baztan) y Andatza-Ezkeltzu Bizirik (Zizurkil) el 29 de marzo en Donostia

--El científico Antonio Turiel también ofrecerá una conferencia el 2 de mayo--

El miércoles 29 de marzo, los colectivos ERDIZ BIZIRIK de Baztan y ANDATZA-EZKELTZU BIZIRIK de Zizurkil realizarán una charla en Donostia, a las **19.00h en la Casa de Cultura Okendo de Gros**. Invitamos por ello a acudir a esta charla en **defensa del entorno rural** y a difundirla en vuestro entorno.

Asistimos actualmente a una fuerte ofensiva de proyectos y planes de infraestructura que atentan contra los espacios naturales y el entorno rural. En esta charla, **Antton Lurnaga** y **Maria Goienetxe** del colectivo Erdiz Bizirik expondrán los **graves impactos que ocasionaría la apertura de la nueva mina a cielo abierto promovida por Magnesitas de Navarra en las tierras de pastoreo de Erdiz (cercañas del monte Saioa)**. A su vez, **Ttale Lizarraga** y **Ainhoa Gil** del colectivo Andatza-Ezkeltzu Bizirik informarán sobre las razones de la oposición y sobre la lucha que están llevando a cabo por el abandono del **proyecto de la central eólica promovida por la empresa Green Capital en el monte Ezkeltzu de Zizurkil**.

Conferencia de Antonio Turiel el 2 de mayo:

Por otra parte, anunciamos que el científico-investigador Antonio Turiel realizará el 2 de mayo en Donostia una conferencia titulada **"Macro-proyectos de energías renovables y centrales eólicas a debate"**. El encuentro se celebrará en el Parque de los Viveros de Ulia.

Convocatorias de movilización: Al hilo de las cuestiones que se tratarán en estas charlas, informamos que Erdiz Bizirik ha convocado una **manifestación el 22 de abril en Iruñea** bajo el lema **"Landa Eremuaren Defentsan: Lurraren osasuna, gure etorkizuna"** ("En defensa del entorno rural: la salud de la tierra, nuestro futuro"). A la vez que distintos movimientos y colectivos impulsan una iniciativa en común que culminará con una **importante manifestación el 20 de mayo en Gasteiz** bajo el lema **"Lurraren defentsan: Euskal Herria bizirik!"**.

Organizan: Estas charlas han sido organizadas en Donostia conjuntamente por **Satorraiala, Haritzalde, Uliako Lore Baratzak y Ekologistak Martxan**.

Esperamos por tanto vuestra participación y os invitamos a difundir estas iniciativas en vuestro entorno.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/donostia-martxoak-29an-hitzalidia-baztango